

# Opari distiratsuen



**P**aul triste dago. Bere amonaren urtebetetzea da laster, eta munduko opari politena erosi nahi dio. Baina ez dauka dirudik. Marikalanbrerengana joan da, laguntza bila. Paulen kezka entzun ondoren, galdera bakar bat egin dio Marikalanbrek:

- Zenbat diru daukazu?
- Euro bat -erantzun dio Paulek.
- Nahikoa eta sobera opari distiratsu bat egiteko!
- bota du-. Eta lagunari eskutik helduta, paperdendarantz joan dira.



## Tinta distiratsua

Egin nahi duzu marrazki bat, tinta distiratsuz?  
Nola egiten da, ordea, tinta hori?

### Materiala

Ontzi txiki bat (edalongtzi bat, adibidez)

Ura

Gatza

Zotz bat

Kolore iluneko paper lodia edo kartoi mehea

### Zer egin?

Bota ur pixka bat ontzira, eta gehitu gatza, gatz gehiago hartzen ez duen arte. Ur gazi-gazi hori izango da zure tinta. Zotzaren muturra tinta horretan bustita, marraztu kartoi mehean nahi duzuna. Utzi lehortzen, eta... polita geratu da, baietz?

### Zer gertatu da?

Ur gaziak gatz asko du. Ura lurruntzen denean, gatz kristal eran geratzen da, eta kristaltxo horiek dira distira egiten dutenak.



Laster atera dira. Paulek kartulina beltz bat du eskuetan, eta pintzel bat, belarri atzean. Biak Marikalanbreren etxera joan dira, eta, zuzenean, sukaldera sartu dira. Edalongtzi bat urez bete eta gatzkoilarakada handi bat nahastu dute uretan. Gero, pintzela ur gazitan bustita, izarrak, ilargiak, bi eguzki, planetak, kometak eta saguzar bat marraztu ditu Paulek kartulina beltzean.

–Oso ondo! –esan dio Marikalanbrek–.  
Orain, lehortu arte itxaron behar dugu.  
Ikusiko duzu ze polita geratuko den!



Paulek ezin du itxaron, ordea, eta ile-lehorgailuarekin lehortu du kartulina. Hantxe agertu dira marrazkiak, distiraz beteak.

–Izarren hautsez eginak daudela ematen du!  
–atera zaio Pauli–. Eskerrik asko, Marikalanbre!  
Opari ezin ederragoa egin diot amonari. Ziur nago izugarri gustatuko zaiola. Nahi baduzu, zuri ere egingo dizut bat.

–Mila esker, Paul –dio Marikalanbrek, irribarre bihurri batekin–. Baina nik nahiago dut zure amonaren tartaren zati bat.

